

Itzuli da lurrera Artemis I misioa

Arrakastatsua izan da misioa. *Orion* ontzia Ozeano Barean erori da, Behe Kaliforniako (Mexiko) kosta parean.

2022ko abenduak 11

NASA Ameriketako Estatu Batuetako Espazio Agentziak eman du lehen pausoa: arrakastatsua izan da ilargira lehen aldiz emakume bat bidaltzea helburu duen Artemis I misioaren lehen proba. *Orion* ontzia azaroaren 16an abiatu zen Kennedy Espazio Zentroetik (Florida, AEBak), eta gaur iritsi da Ozeano Barera, Behe Kalifornia parera (Mexiko).

Atmosferan sartu aurretik, 18:00etan, tripulatzaillearen modulua eta zerbitzuena banandu egin dira, eta lehenengoa soilik iritsi da Lurrera. Lehen proba honetan ez da bidaiaririk joan barnean, maniki bat soilik; *Orion* ontziaren eta *SLS* suziriaren gaitasunak probatzea eta informazioa biltzea zen helburua.

Orion orduko 40.000 kilometroko abiadan sartu da atmosferara, 2.760 graduko tenperaturan. Atmosferak orduko 523 kilometroko abiadara murriztu du ontziarena, eta, azkenik, paraxutean itsasoratu da.

Behin uretan zela, erreskate zerbitzuek berreskuratu dute ontzia, baita uretaratzean utzi dituen hondakinak ere. Gaur amaitu den misioak iraun duen 25 egunetan, Lurretik 450.000 kilometrora aldendu da *Orion*; gizakiak eraikitako espaziontzi bat sekula urrutiratu den gehien. Ilargia baino ere urrunago joan da.

Egonaldia Ilargian

NASAk zabaldutako informazioaren arabera, *Orion* ontzia propio diseinatuta dago astronautak espazio sakonera eramateko. Ontzi bakarra da hori egiteko gai dena, baita ilargitik abiadura handian itzultzeko gai dena ere. Hiru elementuz osatuta dago: tripulazioaren modulua, non tripulazioa bizi den; zerbitzu modulua, zeinak indarra, propultsioa eta kontrol termikoa eskaintzen dituen; jaurtiketako ihes sistema, zeinek larrialdi egoera batean tripulazioa atera dezakeen.

Artemis misioaren berezitasuna da emakumeek protagonismoa izango dutela. Arlo horretan emakumeek diskriminazioa jasaten dutela frogatzen duten adibideak baitaude. 2019an, esaterako, *espazio ibilaldi* izeneko misio batean emakumez osaturiko talde batek aritu behar zuen, baina ez zen hala izan, emakumezkoentzako astronauta jantzi bat falta baitzen.

GALDERAK

1. Zer da NASA?
2. Nola deitzen da lehenengo proba egin duen espaziontzia?
3. Tripulatzailaren modulua bakarrik heldu da lurrera.
 - a. Egia
 - b. Gezurra
4. Zer zegoen lehenengo misioaren espaziontzian?
 - a. Mutil bat.
 - b. Emakume bat.
 - c. Maniki bat.
5. Zenbat egun iraun ditu misioak?
 - a. 11
 - b. 18
 - c. 25
 - d. 30
6. Zein ozeanotan itsasoratu da ontzia?
7. Zenbat elementuz dago diseinatuta ontzia?
 - a. 1
 - b. 2
 - c. 3

8. Zertarako balio du jaurtiketako ihes sistema?
- a. Larrialdi egoeretan tripulazioa ateratzeko.
 - b. Tripulazioa bizitzeko.
 - c. Propultsioa eta kontrol termikoa eskaintzeko.
9. Zein da Artemis misioaren berezitasuna?
10. Zergatik egon zen espazio ibilaldi misioan emakumeenganako diskriminazioa?